


**ZALDIBIARRREN JAIOTZA LEKUEN MAPA ETA
BIZTANLERIAREN BILAKAERA**



IKERKETA KUANTITATIBOA, 2012



Zaldibiako Udala





1 EGUNGO ARGAZKI OROKORRA	5
1.1 JAIOTZA TOKIA.....	5
1.2 SEXUA ETA ADIN EGITURA	7
1.3 SEXUA ETA JAIOTZA TOKIA.....	9
1.4 ADINA ETA JAIOTZA TOKIA.....	10
1.5 ETXEAN BIZI DIREN PERTSONA KOPURUA	12
1.6 JAIOTZA TOKIAREN ARABERA ZENBANAKA BIZI DIREN.....	13
2 JAIOTZA TOKI BEREKO TALDE NAGUSIEN ARGAZKIA.....	14
2.1 ZALDIBIAN JAIKOAK.....	14
2.1.1 <i>Zaldibian jaiotakoen adin eta sexu egitura.....</i>	<i>14</i>
2.1.2 <i>Batez besteko adina, sexuaren arabera.....</i>	<i>15</i>
2.1.3 <i>Etxeko kide kopurua.....</i>	<i>15</i>
2.2 GIPUZKOAKO GAINONTZEKO UDALERRIETAN JAIOTAKOAK	16
2.2.1 <i>Adin eta sexu egitura.....</i>	<i>16</i>
2.2.2 <i>Batez besteko adina, sexuaren arabera.....</i>	<i>17</i>
2.2.3 <i>Batez besteko adina.....</i>	<i>17</i>
2.2.4 <i>Zein herritakoak dira (10 herriko ranking-a).....</i>	<i>18</i>
2.3 EUSKAL HERRIKO GAINERAKO HERRIALDEETAN JAIKOAK.....	19
2.3.1 <i>Adin eta sexu egitura.....</i>	<i>19</i>
2.3.2 <i>Batez besteko adina, sexuaren arabera.....</i>	<i>20</i>
2.3.3 <i>Etxeko kide kopurua.....</i>	<i>20</i>
2.3.4 <i>Zein herrialdeetakoak dira.....</i>	<i>21</i>
2.4 EUSKAL HERRITIK KANPOKO KOLEKTIBO KOPURUTSUENAK ZALDIBIAN	22
2.4.1 <i>Estatuz-estatu ranking-a</i>	<i>22</i>
2.4.2 <i>Espaniar Estatuan jaiok</i>	<i>23</i>
2.4.3 <i>Errumanian jaiok</i>	<i>26</i>
2.4.4 <i>Ipar Afrikan jaiok (Maroko eta Aljeria)</i>	<i>28</i>
2.4.5 <i>Hego Amerikan jaiok.....</i>	<i>30</i>
3 ZALDIBIAKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA	32
3.1 ZALDIBIAKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1900. URTETIK HONA	32
3.2 ZALDIBIKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA AZKEN HAMABOST URTEETAN, SEXUAREN ARABERA.....	33



3.3 ZALDIBIAKO HERRITARREN ADIN ETA SEXU EGITURAREN BILAKAERA (2001-2012).....	35
3.4 ZAHARTZE INDIZEAREN BILAKAERA (1991-2012).....	37
4 ZALDIBIAKO IKASTETXEETAKO DATUAK, JATORRIAREN ARABERA	38
4.1 2012/2013 IKASTURTEAN ZALDIBIAKO IKASTETXEETAKO IKASLEEN JATORRIA (ZALDIBIAKO UDALAREN DATUAK)	38
5 ONDORIO NAGUSIAK.....	39

1 EGUNGO ARGAZKI OROKORRA

1.1 JAIOTZA TOKIA

1.Taula: Zaldibian erroldatutako herritarren jaiotza tokia

	Herritar kopurua	Ehunekoak (%)
Zaldibia	880	57,3
Gipuzkoako gainerako udalerrriak	397	25,8
Euskal herriko gainerako 6 lurraldeak	37	2,4
Europa	162	10,5
– Espainiar Estatuko herrialdeak	81	5,3
– Frantziar Estatuko herrialdeak	1	0,1
– Europar Batasuneko estatuak	80	5,2
– Ebtik kanpoko estatuak	0	0,0
Ameriketa	34	2,2
– Hego Amerika	20	1,3
– Ertamerika	6	0,4
– Antillak (Karibea)	8	0,5
– Ipar Amerika	0	0,0
Afrika	27	1,8
– Ipar Afrika	26	1,7
– Saharaz hegoaldeko Afrika	1	0,1
Asia	0	0,0
Ozeania	0	0,0
Guztira	1537	100,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012


Zaldibiako herritarren ia hamarretik sei (% 57,3) Zaldibian bertan jaiotakoa da. Herritarren beste laurden bat (% 25,8) Gipuzkoako beste udalerriren batean jaio eta Zaldibian bizi dena da. Eta herritarren % 2,4 Euskal Herriko gainerako sei herrialdeetan jaio da. Guztira, zaldibiarren gehiengo oso handi bat (% 85,5) Euskal Herrian jaiotakoa da.

Zaldibiarren % 14,5ak Euskal Herrikan kanpo kokatzen du bere jaiotekua. Horien barruan, Europan jaioak (% 10,5), Amerikan jaioak (% 2,2) eta Afrikan jaioak (% 1,8). Bereziki aipagarriak dira Espainiar Estatuko herrialdeetan jaiotakoen kopurua eta baita Errumanian jaiotakoena ere (81 eta 80 zaldibiar, hurrenez hurren).

2.Taula: Zaldibian erroldatutako herritarren jaiotza tokia, laburtuta

	Herritar kopurua	Ehunekoak (%)
Zaldibian jaiok	880	57,3
Gipuzkoan jaiok	1.277	83,1
Euskal Herrian jaiok	1.314	85,5
Munduko beste herrialdeetan jaiok	223	14,5
Guztira	1.537	100,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012




1.2 SEXUA ETA ADIN EGITURA

3.Taula: Zaldibiako herritarren adin eta sexu egitura

	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
0-4 urte	46	3,0	37	2,4	83	5,4
5-9 urte	22	1,4	39	2,5	61	4,0
10-14 urte	35	2,3	32	2,1	67	4,4
15-19 urte	37	2,4	33	2,1	70	4,6
20-24 urte	35	2,3	41	2,7	76	4,9
25-29 urte	40	2,6	52	3,4	92	6,0
30-34 urte	45	2,9	64	4,2	109	7,1
35-39 urte	59	3,8	64	4,2	123	8,0
40-44 urte	44	2,9	57	3,7	101	6,6
45-49 urte	54	3,5	75	4,9	129	8,4
50-54 urte	53	3,4	58	3,8	111	7,2
55-59 urte	56	3,6	60	3,9	116	7,5
60-64 urte	42	2,7	50	3,3	92	6,0
65-69 urte	42	2,7	50	3,3	92	6,0
70-74 urte	27	1,8	39	2,5	66	4,3
75-79 urte	26	1,7	33	2,1	59	3,8
80-84 urte	21	1,4	17	1,1	38	2,5
85-89 urte	25	1,6	7	0,5	32	2,1
90-94 urte	14	0,9	3	0,2	17	1,1
95-99 urte	3	0,2	0	0,0	3	0,2
Guztira	726	47,2	811	52,8	1537	100,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012



Zaldibiako 'adin piramideak' edo biztanleria osaketak aspalditik ez du piramide itxura. Orain erronbo antza handiagoa duela esan genezake. 70. hamarkadatik aurrera jaiotza tasa jaisten hasi zen eta azken hamarkadetako tasa baxuek piramidearen oinarria asko estutzea ekarri dute, nahiz eta, azken urteetan berriro ere zabalpen txiki bat ikus daitekeen.

Honek guztiak arazo bat ekar lezake, hau da, urte batzuk barru erronboaren alde zabala zahartu egingo da eta herritar gazte gutxi egoteak zaharrekiko dependentzia handituko du. Zaldibiaren zahartze indizea (60 urtetik gorako biztanleria / 20 urtetik beherako biztanleria) 147,7 puntukoa da, Goierri mailako indizea baino altuagoa (131,5). Hortaz, Zaldibiako populazioa zaharragoa da batez beste Goierrikoa baino. Kontutan hartzekoa da azken hamarkadan zertxobait gaztetu dela udalerriko biztanleria.


Halere, Zaldibian ez da fenomeno isolatu bat gertatzen ari. Orokorrean, mendebaldeko 'herrialde ekonomikoki garatu' gehienetan eta oraindik gehiago Euskal Herrian, antzerako egoeran aurkitzen dira zonalde asko.

1.3 SEXUA ETA JAIOTZA TOKIA

4.Taula: Zaldibiako herritarren jaiotza tokia, sexuaren arabera

	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Zaldibia	398	54,8	482	59,4	880	57,3
Gipuzkoako gainerako udalerrriak	212	29,2	185	22,8	397	25,8
Euskal herriko gainerako 6 probintziak	22	3,0	15	1,8	37	2,4
Espainiar Estatuko herrialdeak	38	5,2	43	5,3	81	5,3
Europa	21	2,9	60	7,4	81	5,3
Ameriketa	21	2,9	13	1,6	34	2,2
Afrika	14	1,9	13	1,6	27	1,8
Guztira	726	100,0	811	100,0	1537	100,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012



Orokorrean, Zaldibian ez dago ezberdintasun handirik herritarren sexua eta jaiotza tokia gurutzatzerakoan. Aipatzekoa da, gizonezkoen artean batez bestekoa baino gehiago direla herrian bertan jaiotakoak (% 59,4) edota European jaiotakoak (% 7,4 errumaniar eta portugaldarrak). Emakumeen artean aldiz, gehiago dira Gipuzkoako beste udalerrietan jaiotakoak (% 29,2) eta baita amerikarrak ere (% 2,9).

1.4 ADINA ETA JAIOTZA TOKIA


5.Taula: Zaldibiako herritarren jaiotza tokia, adin-tartearen arabera

	0-16 urte		17-35 urte		36-64 urte		65 urte edo gehiago		Guztira	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Zaldibia	190	79,8	186	53,9	311	48,1	193	62,9	880	57,3
Gipuzkoako gainerako udalerriak	32	13,4	77	22,3	220	34,0	68	22,1	397	25,8
Euskal herriko gainerako 6 probintziak	0	0,0	9	2,6	20	3,1	8	2,6	37	2,4
Espainiar Estatuko herrialdeak	6	2,5	6	1,7	32	4,9	37	12,1	81	5,3
Europa	3	1,3	44	12,8	33	5,1	1	0,3	81	5,3
Ameriketa	5	2,1	10	2,9	19	2,9	0	0,0	34	2,2
Afrika	2	0,8	13	3,8	12	1,9	0	0,0	27	1,8
Guztira	238	100,0	345	100,0	647	100,0	307	100,0	1537	100,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012

Adin-tartea eta jaiotza tokia gurutzatuta ezberdintasun argiagoak nabari ditzakegu. Adin-tarte gazteenetan dago Zaldibian bertan jaiotako ehunekorik altuena (ia hamarretik zortzi 16 urtetik beherakoen artean). Adinean aurrera egin ahala eta herritar batzuk joan eta beste batzuk etortzen direnean, beherako joera nabarmentzen da herrian bertan jaiotako artean. Bien bitartean, Gipuzkoako zein Euskal Herriko udalerrietan jaiotako pertsonen ehunekoa goranzko bidean doa. Halere, joera orokor hori 65 urte edo gehiagoko herritarren artean moztu egiten da. Adin-tarte horretan hiru multzo handi bereizi genitzazke zaldibiarren artean jaiotza tokiaren arabera: batetik, Zaldibian bertan jaiotakoak (% 62,9), bestetik, Gipuzkoako gainerako herrietan jaiotakoak (% 22,1) eta, bukatzeko, Espainiar Estatuko herrialdeetan jaiotakoak (% 12,1).

Zaldibiako gazte eta helduen artean, lan egiteko adina dutenen artean, kokatzen dira imigrante gehienak (Espainiar Estatukoak kontutan hartu gabe). 67 gazte eta 64 heldu guztira. Zaldibiar gazteen artean, 17-35 urte bitartekoen artean, dago Euskal Herritik kanpo jaiotako ehuneko altuena. Adin-tarte horretako herritarren bostetik bat baino gehiago (% 21,2) Euskal Herritik kanpo jaiotakoa da.




1.5 ETXEAN BIZI DIREN PERTSONA KOPURUA

6.Taula: Zaldibiako herritarrak, etxean bizi diren persona kopuruaren arabera

	Etxebizitzak	Herritarrak	Herritarrak (%)
Pertsona 1	155	155	10,1
2 pertsona	166	332	21,6
3 pertsona	116	348	22,6
4 pertsona	107	428	27,8
5 pertsona	35	175	11,4
6 pertsona	11	66	4,3
7 pertsona	3	21	1,4
12 pertsona	1	12	0,8
Guztira	594	1.537	100,0

Batez bestekoa 3,3 pertsona etxeko

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012



Zaldibiako herritarren laurdena baino gehiago (% 27,8) lau pertsonako etxebizitzetan bizi da. Binaka eta hiru pertsona bizi direnak ere asko dira (% 21,6 eta % 22,6 hurrenez hurren). Bakarrik bizi da zaldibiarren hamarretik bat (% 10,1) eta bost pertsona edo gehiagoko etxeetan gainerako % 17,8a.


Batez beste Zaldibiako etxeetan 3,3 pertsona bizi dira.

1.6 JAIOTZA TOKIAREN ARABERA ZENBANAKA BIZI DIREN

7.Taula: Zaldibiako herritarrak zenbanaka bizi diren, jaiotza tokiaren arabera

	Jaiotza tokiaren arabera zenbanaka bizi diren
Europar jaiotakoak	4,4
Afrika jaiotakoak	4,1
Ameriketako jaiotakoak	3,6
Euskal herrian jaiotakoak	3,3
Espainiar estatuko herrialdeetan jaiotakoak	2,9
Guztira	3,3

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012



Esan bezala, 3,3 pertsona bizi dira batez beste Zaldibiako etxeetan. Euskal Herrian jaiotako herritarrak batez besteko hori bera du.

Batez bestekoa baino pertsona gutxiago (2,9 pertsona etxebizitzako) bizi dira Espainiar Estatuko herrialdeetan jaio diren zaldibiarrek. Aldiz, mediaren gainetik bizi dira amerikarrak (3,6), afrikarrak (4,1) eta gainerako europarrak (4,4).

2 JAIOTZA TOKI BEREKO TALDE NAGUSIEN ARGAZKIA


2.1 ZALDIBIAN JAIIOAK

2.1.1 Zaldibian jaiotako adin eta sexu egitura

8.Taula: Zaldibian jaiotako herritarren adin eta sexu egitura

	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
0-4 urte	40	4,5	29	3,3	69	7,8
5-9 urte	14	1,6	32	3,6	46	5,2
10-14 urte	30	3,4	24	2,7	54	6,1
15-19 urte	27	3,1	28	3,2	55	6,3
20-24 urte	25	2,8	21	2,4	46	5,2
25-29 urte	15	1,7	24	2,7	39	4,4
30-34 urte	21	2,4	36	4,1	57	6,5
35-39 urte	19	2,2	30	3,4	49	5,6
40-44 urte	17	1,9	19	2,2	36	4,1
45-49 urte	28	3,2	37	4,2	65	7,4
50-54 urte	27	3,1	32	3,6	59	6,7
55-59 urte	27	3,1	38	4,3	65	7,4
60-64 urte	19	2,2	28	3,2	47	5,3
65-69 urte	17	1,9	32	3,6	49	5,6
70-74 urte	11	1,3	25	2,8	36	4,1
75-79 urte	16	1,8	25	2,8	41	4,7
80-84 urte	15	1,7	12	1,4	27	3,1
85-89 urte	16	1,8	7	0,8	23	2,6
90-94 urte	11	1,3	3	0,3	14	1,6
95-99 urte	3	0,3	0	0,0	3	0,3
Guztira	398	45,2	482	54,8	880	100,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012



Zaldibian bertan jaiotakoen adin eta sexu egitura zertxobait gazteagoa da zaldibiar guztien egitura orokorra baino. Irudia ez da hain erronbo formakoa, oinarria zabalagoa du.


Zaldibian jaiotakoen batez besteko adina 41,8 urtekoa da, batez besteko orokorra baino (43,2 urte) ia urte eta erdi gazteagoa.

2.1.2 Batez besteko adina, sexuaren arabera

9.Taula: Zaldibian jaiotakoen batez besteko adina, sexuaren arabera

	Zaldibian jaiok	Orokorra	Ezberdintasuna
Emakumezkoak	41,6	43,9	-2,3
Gizonezkoak	42,0	42,5	-0,5
Guztira	41,8	43,2	-1,4

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012




2.1.3 Etxeko kide kopurua

10.Taula: Zaldibian jaiotakoak zenbanaka bizi diren

	Zaldibian jaiok	Orokorra	Ezberdintasuna
Etxeko kide kopurua	3,3	3,3	0,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012




2.2 GIPUZKOAKO GAINONTZEKO UDALERRIETAN JAIOTAKOAK

2.2.1 Adin eta sexu egitura

11.Taula: Gipuzkoako gainerako herrietan jaiotakoen adin eta sexu egitura

	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
0-4 urte	6	1,5	6	1,5	12	3,0
5-9 urte	6	1,5	3	0,8	9	2,3
10-14 urte	3	0,8	5	1,3	8	2,0
15-19 urte	6	1,5	2	0,5	8	2,0
20-24 urte	6	1,5	5	1,3	11	2,8
25-29 urte	13	3,3	11	2,8	24	6,0
30-34 urte	11	2,8	20	5,0	31	7,8
35-39 urte	23	5,8	16	4,0	39	9,8
40-44 urte	17	4,3	20	5,0	37	9,3
45-49 urte	19	4,8	29	7,3	48	12,1
50-54 urte	18	4,5	14	3,5	32	8,1
55-59 urte	23	5,8	13	3,3	36	9,1
60-64 urte	19	4,8	15	3,8	34	8,6
65-69 urte	13	3,3	10	2,5	23	5,8
70-74 urte	10	2,5	8	2,0	18	4,5
75-79 urte	9	2,3	5	1,3	14	3,5
80-84 urte	3	0,8	3	0,8	6	1,5
85-89 urte	4	1,0	0	0,0	4	1,0
90-94 urte	3	0,8	0	0,0	3	0,8
Guztira	212	53,4	185	46,6	397	100,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012



Gipuzkoako gainerako udalerrietan jaiotakoak, batez beste, zaharragoak dira zaldibiar guztiak kontutan hartuta baino. Gipuzkoako herrietan jaiotakoen media (46,0 urte) ia batez besteko orokorra baino (43,2 urte) ia hiru urte zaharragoa da.


Guzti hau biztanleria 'piramidean' ikus dezakegu. Kasu honetan, 25 urte arteko herritar gutxi daude. Ia denak 30 eta 65 urte bitartean kokatzen dira.

2.2.2 Batez besteko adina, sexuaren arabera

12.Taula: Gipuzkoako gainerako herrietan jaiotakoen batez besteko adina, sexuaren arabera

	Gipuzkoa	Orokorra	Ezberdintasuna
Emakumezkoak	47,4	43,9	3,5
Gizonezkoak	44,5	42,5	2,0
Guztira	46,0	43,2	2,8

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012




2.2.3 Batez besteko adina

13.Taula: Gipuzkoako gainerako herrietan jaiotakoak zenbanaka bizi diren

	Gipuzkoa	Orokorra	Ezberdintasuna
Etxeko kide kopurua	3,3	3,3	0,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012




2.2.4 Zein herritakoak dira (10 herriko ranking-a)

14.Taula: Gipuzkoako gainerako herrietan jaiotakoak zein udalerritakoak diren

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Donostia	67	16,9
Ordizia	59	14,9
Beasain	35	8,8
Tolosa	22	5,5
Gaintza	19	4,8
Lazkao	19	4,8
Ataun	15	3,8
Zumarraga	15	3,8
Abaltzisketa	13	3,3
Itsasondo	9	2,3
Guztira	397	100,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012



Gipuzkoako udalerrri ezberdinetatik Zaldibiara bizitzera joandakoak 397 pertsona dira. Horietatik % 16,9 Donostian jaiotakoak dira, % 14,9 Ordizian eta beste % 8,8 Beasainen. Gutxi gora behera Zaldibian bizi diren Gipuzkoako gainerako udalerrietako herritarren erdia Goierriko herrietatik joandakoa da.


2.3 EUSKAL HERRIKO GAINERAKO HERRIALDEETAN JAIIOAK

2.3.1 Adin eta sexu egitura

15.Taula: Euskal Herriko gainerako herrialdeetan jaiotakoen adin eta sexu egitura

	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
0-4 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
5-9 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
10-14 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
15-19 urte	0	0,0	1	2,7	1	2,7
20-24 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
25-29 urte	1	2,7	1	2,7	2	5,4
30-34 urte	3	8,1	0	0,0	3	8,1
35-39 urte	6	16,2	4	10,8	10	27,0
40-44 urte	1	2,7	1	2,7	2	5,4
45-49 urte	3	8,1	0	0,0	3	8,1
50-54 urte	1	2,7	3	8,1	4	10,8
55-59 urte	2	5,4	1	2,7	3	8,1
60-64 urte	1	2,7	0	0,0	1	2,7
65-69 urte	3	8,1	2	5,4	5	13,5
70-74 urte	1	2,7	1	2,7	2	5,4
75-79 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
80-84 urte	0	0,0	1	2,7	1	2,7
85-89 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
90-94 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
95-99 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Guztira	22	59,5	15	40,5	37	100,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012




Euskal Herriko gainerako 6 herrialdeetan jaiotako zaldibiarren (media 47,7 urte) udalerriko batez bestekoa baino zaharragoak dira (4,5 urte zaharragoak). Multz handiena (% 62,2) adin ertainekoen artean kokatzen da, hau da, 35 eta 64 urte bitartean.

2.3.2 Batez besteko adina, sexuaren arabera

16.Taula: Euskal Herriko gainerako herrialdeetan jaiotako en batez besteko adina, sexuaren arabera

	Euskal Herria	Orokorra	Ezberdintasuna
Emakumezkoak	46,6	43,9	2,7
Gizonezkoak	49,3	42,5	6,8
Guztira	47,7	43,2	4,5

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012




2.3.3 Etxeko kide kopurua

17.Taula: Euskal Herriko gainerako herrialdeetan jaiotakoak zenbanaka bizi diren

	Euskal herria	Orokorra	Ezberdintasuna
Etxeko kide kopurua	2,9	3,3	-0,4

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012




2.3.4 Zein herrialdeetakoak dira

18.Taula: Euskal Herriko gainerako herrialdeetan jaiotakoak zein lurraldetan jaio diren

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Nafarroa	24	64,9
Bizkaia	7	18,9
Araba	5	13,5
Lapurdi	1	2,7
Guztira	37	100,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012



Euskal Herriko gainontzeko sei lurraldeetatik Zaldibiara bizitzera joandako 37 herritarretatik ia bi herenak (% 64,9) nafarrak dira. Besteak, % 18,9a bizkaitarra, % 13,5a arabarra eta % 2,7a lapurtarra.

2.4 EUSKAL HERRITIK KANPOKO KOLEKTIBO KOPURUTSUENAK ZALDIBIAN

2.4.1 Estatuz-estatu ranking-a


19.Taula: Euskal Herritik kanpo jaiotakoak, estatus estatu

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Espainiar Estatua	62	27,8
Errumania	59	26,5
Maroko	23	10,3
Portugal	15	6,7
Galiza	14	6,3
Dominikar Errepublika	7	3,1
Ekuador	6	2,7
Paisos Catalans	5	2,2
Txile	5	2,2
Alemania	4	1,8
Argentina	4	1,8
Bolivia	4	1,8
Argelia	3	1,3
Honduras	3	1,3
Nikaragua	3	1,3
Eskozia	2	0,9
Ekuatore ginea	1	0,4
Frantziar Estatua	1	0,4
Kuba	1	0,4
Peru	1	0,4
Guztira	223	100,0

Euskal Herritik kanpo jaiotako zaldibiarrek 223 pertsona dira. Biztanleriaren % 14,5a dira.

Horien artean, laurden bat baino gehiago (% 27,8) Espainiar Estatuan jaioa da. Multzo handiak osatzen dituzte baita ere errumaniarrek (% 26,5), marokoarrek (% 10,3) edota portugaldarrek (% 6,7).

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012




2.4.2 Espainiar Estatuan jaiokak

2.4.2.1 Adin eta sexu egitura

20.Taula: Espainiar Estatuan jaiotako herritarren adin eta sexu egitura

	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
0-4 urte	0	0,0	2	2,5	2	2,5
5-9 urte	1	1,2	2	2,5	3	3,7
10-14 urte	1	1,2	0	0,0	1	1,2
15-19 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
20-24 urte	0	0,0	1	1,2	1	1,2
25-29 urte	1	1,2	1	1,2	2	2,5
30-34 urte	1	1,2	2	2,5	3	3,7
35-39 urte	1	1,2	0	0,0	1	1,2
40-44 urte	0	0,0	6	7,4	6	7,4
45-49 urte	3	3,7	2	2,5	5	6,2
50-54 urte	2	2,5	4	4,9	6	7,4
55-59 urte	3	3,7	4	4,9	7	8,6
60-64 urte	2	2,5	5	6,2	7	8,6
65-69 urte	9	11,1	6	7,4	15	18,5
70-74 urte	5	6,2	4	4,9	9	11,1
75-79 urte	1	1,2	3	3,7	4	4,9
80-84 urte	3	3,7	1	1,2	4	4,9
85-89 urte	5	6,2	0	0,0	5	6,2
90-94 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
95-99 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Guztira	38	46,9	43	53,1	81	100,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012




Espainiar Estatuan jaiotako zaldibiarren adin eta sexu egitura berezia da. Batetik, 50. hamarkadan hasi eta 70. hamarkadara arte luzatu zen garapen industrialari lotutako imigrazioa daukagu. Euskal Herrira lan bila etorri zirenak eta haien familiak. Bestetik, gaztetxo batzuk ere badaude Espainiar Estatutik etorri direnak eta noski, hauen familiak.

Orokorrean, Zaldibiako herritar guztiak kontutan hartuta baino dezente kolektibo zaharragoa da Espainiar Estatuan jaio diren zaldibiarrena (batez beste 56,9 urte dituzte, media orokorra baino 13,7 urte gehiago).

2.4.2.2 *Batez besteko adina, sexuaren arabera***21.Taula: Espainiar Estatuan jaiotakoen batez besteko adina, sexuaren arabera**


	Espainiar estatuko gainerako herrialdeak	Orokorra	Ezberdintasuna
Emakumezkoak	62,6	43,9	18,7
Gizonezkoak	51,9	42,5	9,4
Guztira	56,9	43,2	13,7

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012

2.4.2.3 *Etxeko kide kopurua***22.Taula: Espainiar Estatuan jaiotakoak zenbanaka bizi diren**

	Espainiar estatuko gainerako herrialdeak	Orokorra	Ezberdintasuna
Etxeko kide kopurua	2,9	3,3	-0,4

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012




2.4.2.4 *Zein herrialdeetakoak diren (5 herrialdeko ranking-a)*

23.Taula: Espainiar Estatuan jaiotakoak zein herrialdeetakoak diren

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Kordoba	11	13,6
Badajoz	7	8,6
Salamanca	7	8,6
A Coruña	6	7,4
Burgos	6	7,4
Guztira	81	100,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012



Espainiar Estatuan jaiotako 81 zaldibiarretatik multzo handiena Kordobakoa da (% 13,6). Badajozen edota Salamancan jaiotakoak dira bigarren eta hirugarren multzo kopurutsuenak (% 8,6 bakoitzak).


2.4.3 Errumanian jaiotako

2.4.3.1 Adin eta sexu egitura

24.Taula: Errumanian jaiotako herritarren adin eta sexu egitura

	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
0-4 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
5-9 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
10-14 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
15-19 urte	1	1,7	2	3,4	3	5,1
20-24 urte	2	3,4	11	18,6	13	22,0
25-29 urte	5	8,5	11	18,6	16	27,1
30-34 urte	3	5,1	2	3,4	5	8,5
35-39 urte	1	1,7	9	15,3	10	16,9
40-44 urte	1	1,7	1	1,7	2	3,4
45-49 urte	1	1,7	3	5,1	4	6,8
50-54 urte	1	1,7	3	5,1	4	6,8
55-59 urte	0	0,0	2	3,4	2	3,4
60-64 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
65-69 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
70-74 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
75-79 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
80-84 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
85-89 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
90-94 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
95-99 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Guztira	15	25,4	44	74,6	59	100,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012




Errumanian jaiotako zaldibiarrek bi berezitasun nabarmen dituzte. Batetik, oso gazteak dira, batez beste 31,8 urte dituzte (media orokorra baino 11,3 urte gutxiago). Eta bestetik, gizonezkoak (% 74,6) askoz gehiago dira emakumezkoak baino (% 25,4).

Beraien artean ez dago errolatuta ez umerik ez eta adineko pertsonarik ere. Denek 15 eta 59 urte bitartean dituzte, hau da, lan egiteko adinean daude.

2.4.3.2 *Batez besteko adina, sexuaren arabera***25.Taula: Errumanian jaiotakoen batez besteko adina, sexuaren arabera**


	Errumania	Orokorra	Ezberdintasuna
Emakumezkoak	31,0	43,9	-12,9
Gizonezkoak	32,1	42,5	-10,3
Guztira	31,8	43,2	-11,3

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012

2.4.3.3 *Etxeko kide kopurua***26.Taula: Errumanian jaiotakoak zenbanaka bizi diren**

	Errumania	Orokorra	Ezberdintasuna
Etxeko kide kopurua	4,7	3,3	1,4

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012




2.4.4 Ipar Afrikan jaiotako (Maroko eta Aljeria)

2.4.4.1 Adin eta sexu egitura

27.Taula: Ipar Afrikan jaiotako herritarren adin eta sexu egitura

	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
0-4 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
5-9 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
10-14 urte	0	0,0	1	3,8	1	3,8
15-19 urte	1	3,8	0	0,0	1	3,8
20-24 urte	1	3,8	0	0,0	1	3,8
25-29 urte	4	15,4	1	3,8	5	19,2
30-34 urte	3	11,5	3	11,5	6	23,1
35-39 urte	1	3,8	2	7,7	3	11,5
40-44 urte	2	7,7	4	15,4	6	23,1
45-49 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
50-54 urte	1	3,8	1	3,8	2	7,7
55-59 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
60-64 urte	0	0,0	1	3,8	1	3,8
65-69 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
70-74 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
75-79 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
80-84 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
85-89 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
90-94 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
95-99 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Guztira	13	50,0	13	50,0	26	100,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012



Maroko eta Aljerian jaiotako zaldibiarrek adin egituraren aldetik Errumanian jaiotakoen antzekoak dira. Batez beste 34,5 urte dituzte (media orokorra baino 8,6 urte gutxiago). Multzo honetako ia pertsona guztiak 25 eta 44 urte bitartean kokatzen dira.


Sexuen banaketa aldiz, oso antzekoa dute Ipar Afrikan jaiotakoek. Gizonezkoak % 50,0a dira eta emakumezkoak beste % 50,0a.

2.4.4.2 *Batez besteko adina, sexuaren arabera*

28.Taula: Ipar Afrikan jaiotako en batez besteko adina, sexuaren arabera

	Ipar Afrika	Orokorra	Ezberdintasuna
Emakumezkoak	31,5	43,9	-12,4
Gizonezkoak	37,5	42,5	-4,9
Guztira	34,5	43,2	-8,6

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012




2.4.4.3 *Etxeko kide kopurua*

29.Taula: Ipar Afrikan jaiotakoak zenbanaka bizi diren

	Ipar Afrika	Orokorra	Ezberdintasuna
Etxeko kide kopurua	4,0	3,3	0,7

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012




2.4.5 Hego Amerikan jaiokak

2.4.5.1 Adin eta sexu egitura

30.Taula: Hego Amerikan jaiotako herritarren adin eta sexu egitura

	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
0-4 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
5-9 urte	1	5,0	1	5,0	2	10,0
10-14 urte	1	5,0	1	5,0	2	10,0
15-19 urte	2	10,0	0	0,0	2	10,0
20-24 urte	1	5,0	2	10,0	3	15,0
25-29 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
30-34 urte	1	5,0	0	0,0	1	5,0
35-39 urte	2	10,0	2	10,0	4	20,0
40-44 urte	2	10,0	2	10,0	4	20,0
45-49 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
50-54 urte	1	5,0	0	0,0	1	5,0
55-59 urte	0	0,0	1	5,0	1	5,0
60-64 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
65-69 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
70-74 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
75-79 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
80-84 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
85-89 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
90-94 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
95-99 urte	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Guztira	11	55,0	9	45,0	20	100,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012




Hego Amerikan jaiotako zaldibiarrek adin egituraren aldetik oso gazteak dira. Batez beste 29,8 urte dituzte (media orokorra baino 13,4 urte gutxiago). Sexuen banaketa antzekoa dute Hego Amerikan jaiotakoek. Gizonezkoak % 45,0a dira eta emakumezkoak % 55,0a.

2.4.5.2 *Batez besteko adina, sexuaren arabera*

31.Taula: Hego Amerikan jaiotako en batez besteko adina, sexuaren arabera

	Hego Amerika	Orokorra	Ezberdintasuna
Emakumezkoak	28,5	43,9	-15,4
Gizonezkoak	31,3	42,5	-11,2
Guztira	29,8	43,2	-13,4

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012




2.4.5.3 *Etxeko kide kopurua*

32.Taula: Hego Amerikan jaiotakoak zenbanaka bizi diren


	Hego Amerika	Orokorra	Ezberdintasuna
Etxeko kide kopurua	4,4	3,3	1,1

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012



3 ZALDIBIAKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA

3.1 ZALDIBIAKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1900. URTETIK HONA



1900. urtean Zaldibia 1.383 herritarrez osatua zegoen. 1920an dagoeneko gaur egungo biztanle kopuru antzeko zuen eta gutxi gora behera kopuru horietan mantendu zen 50. hamarkadara arte. Biztanleriaren igoera esanguratsuen 50. Hamarkadan eman zuen eta ondorengo urteetan 2.025 herritar izatera iritxi zen udalerria.

1970 eta 1990 bitartean populazioaren jaitsiera gertatu zen eta berriro XX.mendeko lehen erdian zeukan biztanle kopurua izatera pasa zen Zaldibia. Ondorengo urteetan gutxi gora behera bere horretan mantendu da.

3.2 ZALDIBIKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA AZKEN HAMABOST URTEETAN, SEXUAREN ARABERA

Zaldibiako biztanleriaren bilakaera 1998 eta 2012 bitartean, urteka

	Guztira		Emakumezkoak		Gizonezkoak	
	Biztanleria	Saldoa	Biztanleria	Saldoa	Biztanleria	Saldoa
1998	1550		739		811	
1999	1526	-24	734	-5	792	-19
2000	1525	-1	736	2	789	-3
2001	1508	-17	734	-2	774	-15
2002	1508	0	727	-7	781	7
2003	1511	3	736	9	775	-6
2004	1481	-30	717	-19	764	-11
2005	1477	-4	711	-6	766	2
2006	1446	-31	697	-14	749	-17
2007	1463	17	694	-3	769	20
2008	1504	41	704	10	800	31
2009	1525	21	710	6	815	15
2010	1504	-21	702	-8	802	-13
2011	1517	13	723	21	794	-8
2012	1537	20	726	3	811	17

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012



Zaldibiako biztanleriaren bilakaera 1998 eta 2012 bitartean, epealdika

	Saldoa guztira	Gizonezkoen saldoa	Emakumezkoen saldoa
1998-2002	-42	-30	-12
2002-2007	-45	-12	-33
2007-2012	74	42	32

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012

	Saldoa guztira	Gizonezkoen saldoa	Emakumezkoen saldoa
1998-2012	-13	0	-13

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012




1998 eta 2006 bitartean Zaldibiak pixkanaka populazioaren galera izan duen arren, azken bost urtetan saldo positiboa izatea lortu du. Guztira, azken 15 urteetako balantzea eginez gero, Zaldibiak hamahiru herritar gutxiago ditu.

3.3 ZALDIBIAKO HERRITARREN ADIN ETA SEXU EGITURAREN BILAKAERA (2001-2012)

Zaldibiako herritarren adin eta sexu egitura, 2001ean

2001	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
0-4 urte	28	1,9	27	1,8	55	3,6
5-9 urte	35	2,3	32	2,1	67	4,4
10-14 urte	29	1,9	25	1,7	54	3,6
15-19 urte	35	2,3	42	2,8	77	5,1
20-24 urte	56	3,7	58	3,8	114	7,6
25-29 urte	44	2,9	52	3,4	96	6,4
30-34 urte	56	3,7	62	4,1	118	7,8
35-39 urte	51	3,4	61	4,0	112	7,4
40-44 urte	54	3,6	58	3,8	112	7,4
45-49 urte	56	3,7	62	4,1	118	7,8
50-54 urte	40	2,7	55	3,6	95	6,3
55-59 urte	50	3,3	54	3,6	104	6,9
60-64 urte	38	2,5	56	3,7	94	6,2
65-69 urte	24	1,6	43	2,9	67	4,4
70-74 urte	31	2,1	31	2,1	62	4,1
75-79 urte	37	2,5	24	1,6	61	4,0
80-84 urte	38	2,5	14	0,9	52	3,4
85 urte edo gehiago	32	2,1	18	1,2	50	3,3
GUZTIRA	734	48,7	774	51,3	1508	100,0


Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012



Zaldibiako herritarren adin eta sexu egitura, 2012an

2012	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
0-4 urte	46	3,0	37	2,4	83	5,4
5-9 urte	22	1,4	39	2,5	61	4,0
10-14 urte	35	2,3	32	2,1	67	4,4
15-19 urte	37	2,4	33	2,1	70	4,6
20-24 urte	35	2,3	41	2,7	76	4,9
25-29 urte	40	2,6	52	3,4	92	6,0
30-34 urte	45	2,9	64	4,2	109	7,1
35-39 urte	59	3,8	64	4,2	123	8,0
40-44 urte	44	2,9	57	3,7	101	6,6
45-49 urte	54	3,5	75	4,9	129	8,4
50-54 urte	53	3,4	58	3,8	111	7,2
55-59 urte	56	3,6	60	3,9	116	7,5
60-64 urte	42	2,7	50	3,3	92	6,0
65-69 urte	42	2,7	50	3,3	92	6,0
70-74 urte	27	1,8	39	2,5	66	4,3
75-79 urte	26	1,7	33	2,1	59	3,8
80-84 urte	21	1,4	17	1,1	38	2,5
85 urte edo gehiago	42	2,7	10	0,7	52	3,4
Guztira	726	47,2	811	52,8	1537	100,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012




3.4 ZAHARTZE INDIZEAREN BILAKAERA (1991-2012)

Zaldibiako biztanleriaren zahartze indizearen bilakaera (1991-2012)

	1991	2001	2012
Zahartze indizea	104,7	152,6	147,7

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012



1991 eta 2001. urteen artean zaldibiako populazioa txikitzen joan zen jaiotza tasa oso baxuaren ondorioz eta biztanleriaren zahartze indizea asko egin zuen gora. 2001 eta 2012. urteen artean aldiz, fenomeno hori frenatzea lortu da eta ez da asko aldatu zaldibiarren adin eta sexu egitura, 'piramide poblazionalak' itxura oso antzekoa du. Herritarren gehiengoa piramidearen (erronboaren) erdian kokatzen da eta pixkanaka jende multzo handi hori zahartzarora iristen denean, adineko pertsonetikiko dependentzia handia izango da.

Halere, udalerriaren zahartze indizea baxuagoa da 2012an, hau da, biztanleria zertxobait gaztetu dela esan genezake neurri batean. Hori gertatu da azken urteetan eman den jaiotza tasaren igoeragatik. 0 eta 4 urte bitarteko zaldibiarrek 55 ziren 2001ean eta gaur egun 83 dira.


4 ZALDIBIAKO IKASTETXEETAKO DATUAK, JATORRIAREN ARABERA

4.1 2012/2013 IKASTURTEAN ZALDIBIAKO IKASTETXEETAKO IKASLEEN JATORRIA (ZALDIBIAKO UDALAREN DATUAK)

2012 / 2013 ikasturtea

	Haur Hezkuntza		Lehen Mailako Hezkuntza	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Zaldibia	59	98,3	68	90,7
Gipuzkoako gainerako udalerrak	0	0,0	1	1,3
Espainiar estatuko gainerako herrialdeak	1	1,7	1	1,3
Europar Batasuna	0	0,0	2	2,7
Ipar Afrika	0	0,0	2	2,7
Hego Amerika	0	0,0	1	1,3
Guztira	60	100,0	75	100,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012



Aurtengo ikasturtea kontutan hartzen badugu, Zaldibiako ikastetxeetan kokatzen diren haur eta gaztetxoek gehiengo handi bat (% 98,3 Haur Hezkuntzan eta % 92,0 Lehen Hezkuntzan) Euskal Herrian jaiotakoa da, ia denak Zaldibian bertan. Horien artean bi gurasoak Euskal Herrikan kanpo jaiotakoak dituzten batzuk ere sartzen dira.

Zaldibiako ikastetxeen ikasleek artean, Euskal Herrikan kanpo jaio direnak, beraz, ez dira asko. Bertan kokatzen dira Espainiar Estatuko, Europar Batasuneko beste estatu batzuetako, Ipar Afrikako edota Hego Amerikako haur eta gaztetxoak.

5 ONDORIO NAGUSIAK

Zaldibiarren artean Euskal Herrian jaiotakoek ehuneko oso altua osatzen dute. Herritarren % 85,5a dira, horietatik gehienak Zaldibiako udalerrian bertan jaiotakoak. Zaldibiarren gainerako % 14,5a Euskal Herriko mugetatik kanpo jaiotakoa da. Multzo honen barruan, jaioleku kopurutsuenak Espainiar Estatuko herrialdeak, Errumania, Maroko edota Portugal dira. Hala eta guztiz ere, beste estatu askotatik etorritako jendea ere bizi da Zaldibian.

Euskal Herritik kanpo jaiotako herritarren ehunekoa ez da oso altua udalerrri honetan, inguruko beste herri handiago batzuekin alderatzen badugu, esaterako, Ordizia edo Beasain. Aldiz, Espainia eta Frantzia ez diren Europar Batasuneko beste herrialdeetan jaiotakoen ehunekoa (% 5,2) nahiko esanguratsua da. Gainera, bi herrialdeetatik etorritakoak osatzen dute talde hau: Errumania eta Portugal.

Txostenean zehar esan bezala, Zaldibiako biztanleria 'piramidea' ez da piramide itxurakoa, erronbo formakoa baizik. Orokorrean, mendebaldeko 'herrialde ekonomikoki garatu' gehienetan gertatzen den fenomeno da hau, jaiotza tasaren beherakada azkarra eta bizi esperantzaren luzatzearen eraginez. Gaur egun ustezko 'piramide' horren oinarria oso estua da, nahiz eta, azken urteetan berriro ere zabalpen txiki bat ikus daitekeen.

Immigrazio fluxu 'berriek' biztanleriaren adin egitura gaztetzeara eragiten dute, kanpotik datorren jendea nahiko gaztea izan ohi baita (kasu askotan haur edo gaztetxoekin gainera). Bestetik, immigrazio 'tradizionala', hau da, 50, 60 eta 70. hamarkadetan iritsitako Espainiar Estatuan jaiotako herritarrak jada adinean aurrera joan dira. Hamarkada batzuetan 'fluxu' hori etenda egon den arren, azken urteetan Espainiar Estatua jasaten ari den krisi ekonomiko gogorrek fenomeno hori berriro goruzko joeran jarri duela eta begiratu beharreko aspektua dela iruditzen zaigu.

GIPUZKOAN ETA EUSKAL HERRIAN JAIKO DIRENEN EZAUGARRIAK

Zaldibiatik kanpo, baina Gipuzkoa edo Euskal Herriko udalerrietan jaio diren gehienak adinez nagusiak dira, Zaldibiako batez besteko adina baino zertxobait zaharragoak. Sexuaren arabera, emakumezkoak (% 54,0) gehiago dira gizonezkoak baino (% 46,0).

Gipuzkoan jaiotakoak eta egun Zaldibian bizi direnak 397 pertsona dira. Goierriko gainerako udalerrietatik joandakoak dira erdiak, gertutasun geografikoagatik logikoa dena. Asko dira baita ere Donostia edota Tolosan jaiotakoak (% 16,9 eta 5,5 hurrenez hurren). Bestetik, gainerako sei euskal lurraldeetan jaiotako zaldibiarren artean (37 dira guztira) aipagarriena da nafarrak direla ia bi herena (% 64,9).

EUSKAL HERRITIK KANPO JAIKO DIRENEN EZAUGARRIAK

Euskal Herritik kanpo jaiotako zaldibiarrek 223 dira, herritarren % 14,5a. Gehiago dira gizonezkoak (% 57,8) emakumezkoak baino (% 42,2), batez ere, errumaniar kolektiboa nagusiki gizonezkoek osatzen dutelako. Jaiotza toki kopurutsuenak Espainiar Estatu (81 herritar), Errumania (59 herritar) eta Maroko (23 herritar) dira.

Gorago aipatu moduan, Euskal Herritik kanpo jaiotako kolektibo nagusiek era ezberdinean eragiten dute Zaldibiako herritarren biztanleria egituran. Espainiar Estatuan jaiotako zaldibiarrek adinez zaharrak dira gehienak, XX. mendeko 50 eta 70. hamarkadetako migrazioei lotuak, Euskal Herrian eman zen garapen industrialaren eraginez etorritakoak. Aldiz, urrunagotik etorritako herritarrek (errumaniarrek, portugaldarrek, marokoarrek, etb...) biztanleriaren gaztetzea eragiten dute, nahiko kolektibo gazteak direlako, 30 eta 40 urte bitartekoak gehienak. XXI. mendeko lehen hamarkadan zehar emandako migrazioei lotuak. Kontutan hartu beharrekoa da, azken aldirian Espainiar Estatuan jaiotako jende berria (helduak zein gaztetxoak) ere badagoela herrian. Berriro ere zonalde horretatik datozen immigratzaileen seinale izan daiteke, Euskadi estatu mailan ekonomikoki hobeto dagoela eta.

Sexuaren arabera aztertuz gero, Espainiar Estatuan jaiotako zaldibiarrek oso antzeko daude banatuta. Gizonezkoak (% 53,1) emakumezkoak baino (% 46,9) zertxobait gehiago dira kopurutan. Errumaniar eta portugaldarren artean ostera, gizonezkoak dira nagusi (% 74). Eta amerikarren artean emakumezko gehiago daude (% 62).

Bestetik, adin-tarteak eta jaiotza toki gurutzatuta hiru multzotan bereizi genezake Zaldibiako biztanleria. Gaztetxoaren artean (0-16 urte) gehiengo oso handia (% 93) Gipuzkoan jaiotakoa da, Zaldibia barne. Adinekoen artean (65 urte edo gehiago) gipuzkoarrak dira (% 85) gehiengo zabala, baina aldi berean, Espainiar Estatuan jaiotako kopururik handiena adin-tarte honetan kokatzen da. 65 urte edo gehiagoko zaldibiarren hamarretik bat baino gehiago (% 12,1) Espainiar Estatuan jaioa da. Bukatzeko, lan egiteko adinean dauden artean (17-64) hamarretik zortzi inguru euskal herritarrek dira, Espainiar Estatuan jaioak ez dira hainbeste, eta munduko beste tokietan jaiotako diren ehunekoa altua da (% 15 ingurukoa). Immigrazio fluxu 'berria' edo behintzat gurera krisi ekonomikoa hasi arte (eta ondoren ere maila txikiago batean) etorri direnak lan egiteko adinean etorri dira.

Duela hamarkada batzuk Espainiar Estatutik etorritako imigranteek aniztasuna sortu bazuten herrian (aniztasun sozial, kultura edota politikoa), gaur egun are eta gehiago, Europako beste estatuetatik eta munduko herrialde ezberdinetatik etorritako herritarrekin. Komunitate ezberdinen arteko ezagutza, aitortza eta bizikidetzaren proiektuak egiteko ezinbestekoa da errealitate hau kontutan hartzea. Pista txiki batzuk eskaintzen ditu mapa honek, diagnostiko bat egiteko balio du eta aurrera begirako estrategia bat martxan jartzeko aukera zabaltzen du maila ezberdinetan, hala nola, hezkuntzan, kulturen, hizkuntzan edo lan-munduan.

Biztanleriaren jaioterriaren araberako konposizio anitzak erronkak sortzen ditu nazio bezala eta udalerririk bezala. Garrantzitsua da detektatzea beste herrialdeetatik etorritako zaldibiarrek edota bertan jaiotako herritarrek zein behar eta zein zailtasun dituzten elkarren arteko ezagutza, aitortza eta bizikidetzaren eszenatoki baten aldera bidea egiteko.


ZALDIBIAKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA

XX. mende hasieratik gaur egun arte Zaldibiako biztanlerian eman diren gora-behera nagusiak migrazioei lotuak izan dira. Aldaketarik nabarmenena frankismoaren garaian eman zen, 50 eta 60. hamarkaden artean, Zaldibian erroldatutako kopurua inoizko altuena izatera iritsi baitzen 2.025 biztanlerekin. Ondorengo urteetan, batez ere industria-birmoldaketa emandakoan populazio beherakada konstante bat izan zuen Gerra Zibilaren aurreko herritar kopurura jaitsi arte XXI. mende hasieran. Azken urteetan, immigrazio 'berriaren' eta jaiotza tasaren gorakadaren poderioz biztanleria mantendu edo zertxobait haztea lortu da. Honek etengabe gora zioan zahartze indizea pixka bat jaistea ere ekarri du. Aipagarria da gaur gaurkoz 0 eta 4 urte bitarteko 83 zaldibiar daudela, 2001. urtean baino dezente gehiago (orduan 55 ziren).

ZALDIBIAKO IKASTETXEETAKO IKASLEAK ETA BERAIEN JAIOTZA TOKIA

Abian dagoen ikasturteko (2012/2013) datuen arabera, Zaldibiako ikastetxeetan ikasten duten haur eta gaztetxoek gehiago handi bat (% 98,3 Haur Hezkuntzan eta % 92,0 Lehen Hezkuntzan) Euskal Herrian jaiotakoa da, ia denak Zaldibian bertan. Horien artean bi gurasoak Euskal Herritik kanpo jaiotakoak dituzten batzuk ere sartzen dira, noski. Zaldibiako ikastetxeen ikasleen artean, Euskal Herritik kanpo jaio direnak, beraz, ez dira asko. Bertan kokatzen dira Espainiar Estatuko, Europar Batasuneko beste estatu batzuetako, Ipar Afrikako edota Hego Amerikako haur eta gaztetxoak.

Hezkuntzak eskaintzen duen harreman esparrua lehentasunezkoztat jo behar da elkar ezagutza, aitortza eta bizikidetzaren erronkak jorratzerako orduan. Eskema horretan hezitzen dira haur eta gaztetxoak eta, bestalde, helduen artean ere elkar ezagutza eta harremanak lantzeko aukera ematen du.



[a]

aztiker

Jendarte-ikerketa aplikatuak

Martin Ugalde Kultur Parkea, Gudarien Etorbidea z/g

20140 ANDOAIN [GIPUZKOA]

943 59 30 06 / 608 018 512

idazkaritza@aztiker.com